

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 125/2020 Erabakia, otsailaren 25ekoa. Onestea Arabako landa bideak 2020an mamtentzeko laguntza lerroaren deialdia, "laguntzak gauzatan" modalitatean

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuz –dekretu hori martxoaren 12ko 12/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen-, "Gauzazko laguntzak" modalitatean Arabako landa bideak mantentzea xede duten laguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi ziren.

32/2017 Foru Dekretuan zehaztu ziren Arabako Lurralde Historikoko zonak eta azpizonak, horietan guztietan aldi berean jarduteko; bai eta jardunak egiteko ordena ere, Arabako landa bideak mantentzeko gauzazko laguntzen deialdi bakoitzean.

Jardun plana 3 zonetako 6. azpizonatik hasi zen 2017ko deialdian, eta 2018koan eta 2019an hiru zonetako 1. eta 2. azpizonak egin ziren, hurrenez hurren. Hortaz, 2020ko deialdirako, 3 zonetako 3. azpizonek osatuko dute jardun eremu geografikoa.

7. artikulua arabera, urtero onartuko da kasuan kasuko laguntza deialdia, eta bertan jardun azpizonez gain hauek ere sartuko dira: eskaerak aurkezteko epea eta lekua, dirulaguntzak esleituta duen aurrekontu kreditua eta, hala behar izanez gero, espedienteak sailkatzeko irizpide objektiboak, eskaerak aurkezteko inprimaki normalizatua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta dirulaguntzaren gutxieneko edo gehienezko zenbateko baliokidea.

Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastu aurrekontuan badago kreditua gauzazko laguntza horietarako, hain zuzen ere, 40.1.01.46.01.650.00.03 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" aurrekontu partidan. Hortaz, haien deialdia onetsi behar da eta urte horretako jardun eremu geografikoa ezarri.

Aginduzko txostenak ikusirik, eta haien ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, erabaki hau hartu da

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntza horietarako deialdia onestea, 2020rako, ondoren zehazten denaren arabera:

– Jardun eremu geografikoa: 3 zonetako 3. azpizona bezala definitutakoak, deialdi honetan, erabaki honen 1. eranskinean jasotakoak dira.

– Eskaerak aurkezteko epea eta lekua: 20 egun natural erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

– Dirulaguntzari esleitu zaion aurrekontu kreditua: 450.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako gastu aurrekontuko 40.1.01.46.01.650.00.03 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" partidaren kontura.

– Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa: Erakunde batek ezingo du 20.000,00 euro baino gehiagoren baliokidea den gauzazko laguntzarik jaso, 32/2017 Foru Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuta.

— Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak: deialdi honetan, oinarri arautzaileen 6. artikuluan jasotakoak dira.

Bigarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea deialdiaren ebazpenaren kontra jartzen diren errekursoak ebazteko.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA

2020KO DEIALDIKO JARDUN AZPIZONAK

1 ZONA – 3 AZPIZONA		
UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (Km)
MAÑUETA	ARABAKO ERRIOXA	29,4
MAÑUETAKO UDALA		29,4
LEZA	ARABAKO ERRIOXA	26,67
LEZAKO UDALA		26,67
NAVARIDAS	ARABAKO ERRIOXA	32,86
NAVARIDASKO UDALA		32,86
ESKUERNAGA	ARABAKO ERRIOXA	35,59
ESKUERNAGAKO UDALA		35,59
2 ZONA – 3 AZPIZONA		
UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (Km)
GASTEIZ (3 ZONA HEGOALDE-MENDEBALDEA)	GASTEIZ	33,41
ARETXABALETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		0,67
ARIÑIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,20
ARMENTIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,98
BERROZTEGIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,87
GARDELEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,05
GOMETXAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,34
LASARTEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,30
MARGARITAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,43
SUBILLA GASTEIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,98
ZUHATZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,10
ZUMELTZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,48
SANTIKURUTZE KANPEZU	MENDIALDEA	90,78
ANTOÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,98
BUJANDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,28
ORBISOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		14,02
OTEOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,80
SANTIKURUTZE KANPEZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		38,70
HARANA	MENDIALDEA	49,14
ALDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,17
KONTRASTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,07

DONE BIKENDI HARANEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,72
URIBARRI HARANEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,19

3 ZONA – 3 AZPIZONA		
UDALERRIA/ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (Km)
AMURRIO	AIARALDEA	66,67
AMURRIKO UDALA		1,29
ALORIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,46
ARTOMAÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,82
BARANBIOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,00
DELIKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		14,87
LARRINBEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,33
LEKAMAÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,85
LEZAMAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,61
TERTANGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,44

ARTZINIEGA	AIARALDEA	12,66
ARTZINIEGAKO UDALA		12,66

IRUÑA OKA	AÑANA	40,01
IRUÑA OKAKO UDALA		4,81
TRESPONDEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,16
MANDAITAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,39
LANGRAIZ OKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,95
OLABARRIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,70

KUARTANGO	AÑANA	58,21
ANDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,65
APRIKANOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,79
ETXABARRI KUARTANGOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,55
JOKANOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,75
LUNAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,37
MARINDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,69
SENDADIANOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,97
URBINA EZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,45
ETXABARRI KUARTANGOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,51
ZUHATZU KUARTANGOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,50